




# NABARNIZ



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Zilarrean gorosti bat berezko kolorean zelai berdean. Bordura gorria.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de plata, un acebo de su color terrasado de sinople. Bordura de gules.

## AITAMEN HISTORIKOA

“Ondaro” Goi-Paleolitoko aztarnategian historiaurreko aztarnak aurkitu zituan J. M. Barandiaranek 1920an.

Maruelezako kastroa, Nabarniz be deitua, Gernikako 1366ko urigutunean aitatzen da, eta Gernikagaz mugakideetarikoa bat “*las cabas de Gastiburu*” zala esaten da.

1944an B. Taracenak eta A. Fernándezek ikerketak egin zituen kastroan. Deskripzioa: harresia lautadan zehar eta mendiaren magaletik zehar doa Arrolagoiko baserriraino; K. a. II. mendekoa dala uste da, baina ez da data ziurra.

Ilunzarreko gotorlekua:

“...*en su cima se conocen vestigios de una al parecer cerca o parapeto con su camino interior y glasis exterior en figura elíptica de unos 1.000 pies de diámetro mayor*”. Deskripzioa: harresia da eta Ilunzar mendia inguratzen dau sortaldean izan ezik, alde horretan jausia handiagoa da eta.

XVII. mendearen hasieran hauteskunde orokorrak egin ziran Bizkaiko Jaurreriko erregimentu nagusiko kideak aukeratzeko, eta hauteskundeotan Nabarniz oinaztarren aldekoa zan. 1813an Nabarnizen frantsesen kontrako burruka egon zan, eta burrukotan Bizkaiko “Artola” eta “Mugartegi” batailoiek hartu eben parte.

## RESEÑA HISTÓRICA

Restos prehistóricos en el yacimiento del Paleolítico Superior de “Ondaro”, descubierto en 1920 por J.M. de Barandiaran.

El castro de Marueleza, también llamado de Nabarniz, aparece ya citado en 1366 en la carta-puebla de Gernika como uno de los límites de la villa: “*las cabas de Gastiburu*”. En 1944, B. Taracena y A. Fernández de Avilés realizaron una serie de sondeos en el castro.

Descripción: la muralla recorre el llano y la cota más baja de la cumbre del monte hasta cerca del caserío Arrolagoiko. Cronológicamente la fechación provisional queda en la segunda mitad del s. II a. de C.

Recinto fortificado de Ilunzar: “...*en su cima se conocen vestigios de una al parecer cerca o parapeto con su camino interior y glasis exterior en figura elíptica de unos 1.000 pies de diámetro mayor*”.

Descripción: se compone de un muro que rodea la cima del monte Ilunzar, excepto por su vertiente E., donde la caída es más brusca.

A comienzos del s. XVII, en las elecciones del personal del regimiento general del Señorío de Bizkaia, Nabarniz votaba por la parcialidad oñacina. En abril de 1813 lucharon en Nabarniz contra las tropas francesas los batallones de Bizkaia “Artola” y “Mugartegi”.

